ZARAUZKO UDALA
KULTURA DEPARTAMENTUA

# XXXVI. BASARRI BERTSOPAPER SARIA

2020
1º Saria: HARITZ MUJIKA LASA
"Posdata"

*Konfinamenduaren hirurogeigarren egunean idatzi baina mugaz bestalde bidali gabe utzitako postala.*
DOINUA: *Zure bular politak*

1.- Egunak luze doaz
eta gauak labur
igande hartan esan
nizunetik "agur"
geroztik naiz geldirik
bare dagoen ur
ilusio hutsetik
elikatzen den lur.

2.- Goizetan kentzerako
begi makar printzak
buruan dauzkat zure
bezperako hitzak
baina nola basoan
hazten diren zizak
bizitza laburra du
pozaren bizitzak.

3.- Maitasuna ez dago
arauetik salbu
ezin besarkadarik
erosi nahiz saldu
laztandu ta bihurtu
elkarren azal gu,
hura larrutu eta
mamia azaldu.

4.- Nahiz irri bat zabaldu
bi ezpainen mugan
ezin egonak zenbat
ezinegon gugan.
Goxo hartu nahi zaitut,
kulunkatu zugan,
beldur naiz, beldur ea
asmatuko dudan.

5.- Nola doan garain
zalduna zaldian
amesten dut esnatze
baten atarian.
Aitortza bat, laztan bat,
muxu bat agian,
lehen aldi berri bat
ehungarren aldian.

6.- Nahiz dena den pasio,
loraldi eta su
ta aitortu "behar zaitut,
kontuan har zazu"
zu gabe izan naiz ni
ni gabe zara zu.
baina alboan mesede
egiten didazu.

7.- Neure argi baitzara
ez itzal, ez orbain
baina itxialdi txar
ta zail baten ordain
berriz zu ezagutzeko
beharra dut orain.
ta sareak zapi fin
bihurtzeko *off-line*.

8.- Harreman birtualak
beti dira zailak
koloreak itzaltzen
baititu pantailak.
Nik pasahitzak baina
nahiago zerrailak
eta bizar laztanez
gorritu masailak.

9.- Baina harremantzeko
lehen geneuzkan erak
baimen omen ditzake
denboraren hegak.
Ta gerora baletor
antzeko beste bat
azpian har gaitzala
teilatupe berak.